

Kontrol profesionalaren polarizazioa

Eredu ekonomiko garaikideko lan-indar amateurra arkitektura-produkzio katean

Laburpena


Gaur egungo eredu ekonomikoan gero eta arruntagoa da lan-indar amateurra produktu nahiz zerbitzuen produkzio-kateetan txertatzea. Artikulu honek kontrol profesionalaren polarizazioa proposatzen du, arkitektura-produkzio kateetan lan-indar amateurratxertatzeko.

Gako-hitzak: kontrola, produkzio-katea, ekonomia partekatua, open building

Abstract

In the current economic model, it is increasingly common for the amateur labor force to be implemented in the production chains of both products and services. This article deals with how this could happen through the polarization of professional control over architectural production chains.

Keywords: control, production chain, shared economy, open building



Gaizka Altuna Charterina

Arkitektoa. Madrilgo Unibertsitate
Politeknikoko (UPM) Arkitektura
Proiektuetako Departamentuan (DPA)
doktoregaia

Bidaltze data: 2018-09-07

Onartze data: 2018-09-25



«Sharing economy», «platform economy», «crowdfunding»... Azken urteetan, bereziki azken hamarkadan, medio digitalek eragindako jarduera ekonomiko berriak deskribatzeko helburua duten hainbat neologismo jaio dira. Izan ere, teknologia digitalek sistema ekonomikoaren hainbat alderdi aldatu dituzte. Alderdi horietako bat profesionalak produktu eta zerbitzuen kate produktiboetan duten papera izan da. Orain dela gutxira arte, zenbait produktu eta zerbitzu profesionalak soilik eskaini zitzaizketen, gaur egun ordea, amateur eta ez profesionalak zerbitzu eta produktu horiek eskaintzeko ahalmena lortu dute; izan ere, teknologia digitalek eragindako zenbait aldaketak eragile ez profesionalen gaitasunak aldatu dituzte. Ahaldundutako erabiltzaile amateurren paradigma berri honek esfera profesionaletan aldaketa bortitzak eragin ditzake, zenbait kasutan profesionalen egoera indartuz, besteetan ahulduz, haien lan-paradigma birpentsatzera behartuz. Egoera honetan, ezinbestean galdetzen diogu geure buruari nola eragin liokeen arkitekturari profesionaltasuna jasaten ari den aldaketa honek. Posible da lan-indar amateurra arkitekturaren produkzioan integratzea? Lan-kateari eragiteaz gain, diseinuari ere eragingo lioke?

Amateurren iraultza

Industrializazioak hainbat aldaketa eragin zituen gizartean. Horietako bat, lanaren banaketaren ondorioz jaiotako profesional eta adituak izan ziren. Profesional bakoitzak kompetentzia eta gaitasun espezifiko batzuk zituen eta haien zerbitzu espezializatuak, gizartearentzat ezinbestekoak, ordainsari oparoekin ordaindu ohi ziren. Horrez gain, profesional asko beren eginbeharrak burutzeko erabilera

zaileko hainbat tresna garestiz baliatzen ziren. Ahalmen profesionalak gutxi batzuen esku ziren. Hala ere, XX. mendearen bukaeran tresna eta jakintza profesionalak demokratizatzen hasi ziren. Horiek gero eta eskuragarriagoak bilakatu ziren, bai prezio eta bai erabileran. Modu horretan, XXI. mendearen hasieran erabiltzaile amateur edo zaletuek tresna profesionalak erabiltzeari ekin zioten, eta horien bitartez emaitza ia profesionalak lortzen hasi ziren. Horren adibide bikainak argazki-makina digital profesionalak izan duten prezio jaitsieran edo Dobson teleskopioek¹ izandako demokratizazioan ikus ginitzake.

Tresna eta jakintza profesionalen hornituriko biztanleria ez profesional horrek paradigma ekonomikoaren aldaketa bat ekarri du. Charles Leadbeater-ek eta Paul Miller-ek paradigma-aldaketa horri Pro-Am Iraultza (Pro-Am Revolution) deitu zioten, non profesionalen eta ez profesionalen artean norbanako berri bat ageri den: «Pro-Am»-a. «Profesional Amateur»-a, Leadbeater eta Miller-en hitzetan, ez dira profesionalak, eta ez dute beren burua hala ikusten, beren diru-sarreraren % 50 baino gutxiago lortzen baitute jarduera horien bitartez. Baina bestalde, tresna eta jakintza profesionalen horniturik, «Pro-Am»-ek estandar profesionalak lortzeko asmo osoa daukate (Leadbeater & Miller, 2004). Beste alde batetik, Arun Sundararajan-ek

¹ «1970 eta 1980 hamarkadetakoa astronomo amateur batek Messier objektuak eta Katalogo Orokor Berriko objektuak soilik esploratu zitzaizketen bitartean, gaur egungo astronomo amateurrek Indize Katalogoko, Abell-en Katalogoko, Minkowskiren Katalogoko eta zero sakoneko beste objektu-katalogo batzuetako objektuak ikusi ditzakete; orain arte eremu profesionalekoak kontsideratzen ziren objektuak. Hau, gehienbat, Dobson-en teleskopioari esker izan da». Wikipedia, «Telescopio Dobson» artikuluko atala. Egileak itzulia. <https://es.wikipedia.org/wiki/Telescopio_Dobson> (Kontsulta: 2018-08-27).

«partekaturiko ekonomiak» (sharing economy) dakarren paradigma-aldaketa definitzeko bost puntu erabiltzen ditu, non azken biak profesionaltasuna jasaten ari den aldaketa honetaz mintzatzen diren: profesionalak eta ez profesionalak banatzen dituen lerroaren lausotzea, eta behin betiko lanaren, behin-behineko lanaren eta aisiaren arteko lerroen lausotzea (Sundararajan, 2016). Era berean Richard eta Daniel Susskind-ek *Future of Professions* liburuan ideia berbera defendatzen dute (Susskind & Susskind, 2015).

Aldaketa honen ondorioak esfera profesioaletan arras ezberdinak izan daitezke. Adibidez, Zooniverse² edo FoldIt³ bezalako plataformen bitartez erabiltzaile ez profesionalak zientzialari profesionalekin batera lan egin dezakete. Erabiltzaile amateurrek lan mekanikoez arduratzen dira, zientzialariak egin behar tekniko eta intelektualagoez arduratzeko denbora eta energia gehiago izateko helburuarekin. Horrez gain, lan-indar amateurra lan mekanikoak gauzatzeko laguntza handia izateaz gain, berrikuntza-iturri bikaina izan daiteke (Leadbeater & Miller, 2004; Von Hippel, 2005).

Beste zenbait kasutan, erabiltzaile ez profesionalak profesionalekin kolaboratu beharrean haien kompetentzia bilakatu izan dira, negozio-eredu klasikoak hankaz gora utziz. Adibidez, Uber edo Cabify plataforma digitalen sutan jarri dute taxilarien gremioa, ezin baitaitezke gidari amateurrek eskaintzen dituzten zerbitzuen aurka lehiatu⁴. Sonatua da, orobat, IStockphoto bezalako argazkien stock-plataformek stock-argazkilari profesionalen negozio-ereduari eragindako aldaketa bortitza. IStockphoto-n argazkilari profesional zein amateurren argazkiak eskuratu daitezke. Plataforma jaio aurretik stock-eko argazkiek 100-150 \$-eko prezioa izan zezaketen, gaur egun ordea, IStockphoto-n 1 \$ baino gutxiagoagatik eros daitezke argazkiak (Howe, 2006).

Amateurren iraultza arkitekturan

Arkitekturan oraindik aldaketa bortitzik jasan izan ez dugun arren, Steven Kurutz-ek New York Times egunkarian publikaturiko «Skipping the Architect: Wise or Otherwise?» artikuluan ikus genezake paradigma-aldaketa honek izan ditzakeen ondorioen aurrerapen bat. Kurutz-ek bere artikuluan beren etxebizitzak eraiki edo berritzeko orduan arkitekto baten zerbitzuak kontratu beharrean, diseinu eta exekuzioaren erantzukizuna beren bizkar hartu izan duten erabiltzaile amateur batzuen kasuak kontatzen ditu (Kurutz, 2012).

Kurutz-ek biltzen dituen kasuak isolatuak diren arren, amateurren profesionalizazioa arkitekturara ere hel litekeela erakusten digu. Ezinbestekoa dirudi pentsatzeak tresna profesionalekin hornituriko erabiltzaile amateurrek sektore orotara helduko direla eta profesionalak kontrol-eremuaren atal bat laga beharko dutela Pro-Am-ekin partekatzeke. Baina posible al da arkitektura-proiektuaren kontrol-eremu bat amateurrei lagatzea hura kaltetu gabe?

2 Informazio gehiago: <<https://www.zooniverse.org/about>>.

3 Informazio gehiago: <<https://fold.it/portal/info/about>>.

4 <<http://www.economista.es/catalunya/noticias/9301662/07/18/Las-protestas-del-taxi-para-exigir-proteccion-frente-a-Uber-y-Cabify-han-marcado-la-semana.html>>

Kontrol profesionalaren polarizazioa

Ikusi dugun bezala, gaur egungo ekonomia-ereduan ezinbestekoa dirudi lan-indar amateurra esfera profesioaletan nola txertatu daitekeen pentsatzeak, bai abantaila bat ekar dezakeelako, FoldIt edo Zooniverse kasuetan gertatzen den bezala, bai profesionalen negozio-eredu klasikoak, hankaz gora uzteko mehatxuarekin, birpentsatu behar direlako.


Ez dago dudarik eragile amateurrek arkitektura-proiektuan modu egokian txertatzeko beharrezkoa izango dela tresna egokiak diseinatzea. Kurutz-en testuan batzen den bezala, zenbait erabiltzaile amateurrek Sketchup programaren bitartez ekin zioten beren etxebizitza diseinatzekeo prozesuari. Hala ere, erabiltzeko erraza den softwarea izan arren, asko dauka oraindik hobetzeko. Hala ere, tresnak garrantzitsuak diren arren, ez dira nahikoak. Horrez gain, beharrezkoa da lan-indar amateurra arkitekturaren produkzio-katean nolabait txertatzea.

Arkitektura-proiektuak orokorrean eskala ezberdinetan harturiko erabakien interakzioaren bitartez gauzatzen dira. Arkitekturaren diseinu-prozesu arruntan, kontrol profesionala homogeneoa da eskala orotan, lurraldearen antolakuntzatik azken ate-markora. Hala ere, eragile amateurrek produkzio-katean parte hartuko badute, beharrezkoa izango da eragile profesionalen gobernutik at dauden kontrol-eremuak ezartzea. Hori, noski, diseinuari dagokion arazo bat da; izan ere, amateurrek estandar ia profesionalak lortu ahal badituzte ere, profesionalak dagokie kontrol-eremu amateurrek finkatzea, produktu finalaren kalitatea zihurtatzeko. Horrez gain, komenigarria izango da amateurren kontrol-eremuaren inguruko eremuetan estandar profesional altuagoak ezartzea, amateurren gabeziak xurgatzeko.

Open building. Kontrol profesionalaren polarizazioaren adibide bat

Kontrola lagatzearen inguruan zenbait profesional eszeptiko edo negatibo ageri daitezke. Hala ere, historiak ederki funtzionatu duten aurrekariak utzi dizkigu, adibidez, John N. Habraken-en Open Building etxebizitza-ereduaren teoria.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren Herbehereak erabat suntsiturik geratu ziren. Horrek etxebizitza-eskaera handia sortu zuen, eta seriean eraikitako aurrefabrikaturiko etxebizitza monotonoz ase zen. Etxebizitza-bloke inpersonak eta hotz haietan diseinu-prozesutik at erabat zegoen erabiltzaileari ostatu ematea praktika antidemokratikotzat jotzen zuen Habrakenek (Habraken & Ramón, 1975). Egoera horren aurrean, etxebizitzak egiteko modu alternatibo bat proposatu zuen, zeinak zenbait urte geroago Open Building izena jasoko zuen. Open Building-aren teoriaren arabera, arkitektoak ez du etxebizitzaren azken zehaztasunera arte diseinatzen, baizik eta soilik funtsezkoa den euskarria (egitura, instalazioak, inguru komuna...), gainerakoa erabiltzaile bakoitzaren esku baitago. Habrakenen eraikuntza-ereduan, etxebizitza indibidualaren diseinua erabiltzailearen kontrolpean uzteko, arkitektoak eraikinarren eskala orokorrean kontrol handiagoa izan eta diseinu sofistikatuago bat proposatu beharko du, nolabait,



1. irudia ~ Open Building-aren oinarriak. Banda hauen bitartez erabilera ezberdineko espazioak kokatzeko eremu bat definitzen duen azpiegitura ezartzen da.
 Egilea ~ SAR (Stichting Architecten Research).



2. irudia ~ Grundbau und Siedler. Beltzez arkitektoek diseinaturiko euskarria. Gorriz, erabiltzaileek diseinatu eta eraikitako etxebizitzak.
 Egilea ~ Bernhardt und Leeser, Sozietät für Architektur. office@bel.cx

proiektua itxi beharrean, erabiltzaileari aukera-eremuak zabaltzen dizkion azpiegitura bat sortzeko.

Historian zehar eredu horri jarraitu dioten hainbat adibide aurki genitzake. Adibideren batzuk aipatzearren, Erik Fribergers-en Däckshus proiektua edo garaikideagoa den Bel Architectes-en Grundbau und Siedler proiektua ekarri genitzake mahai gainera. Aipagarria da azken adibide horretan nola arkitektoek, erabiltzaileei beren etxebizitzaren diseinu eta exekuzioaren kontrola lagatzeaz gain, behin-behineko tailer-espazioak aurreikusten dituzten sotoan. Behin obra bukatuta, espazio horiek trasteleku bilakatuko dira. Baina segurenik, adibide erradikalenak Elementalen Quinta Monroy bezalako proiektuak izan daitezke, non erabiltzaileak bere etxebizitza osatu behar duen, arkitektoaren kontrolpean at.

Laburbilduz, esan genezake Open Building-aren teoriak erakusten digula arkitekturan, produktu finalaren kalitatea arriskuan jarri gabe, posible dela profesionalen kontroletik at dauden eremuak definitzea.

Ondorioak eta etorkizunerako ikerketa-lerroak

Eredu ekonomiko garaikideak lan-indar amateurren produkzio-kateetan txertatzeko joera du, eta hainbat sektoretan horrek ondorioak izan ditu. Batzuetan onak, produktibitatea areagotuz; beste batzuetan kaltegarriak, negozio-eredu profesionalak hankaz gora jarriz. Arkitekturaren alorrean amateurrak oraindik ez daude produkzio-kateetan txertaturik. Izan ere, arkitekturan kontrol profesionala homogeneoa da eskala guztietan. Hala ere, posible da kontrol profesionala polarizatzea eragile amateurrei kontrol-eremuak lagatzeko, azken mende erdian Open Building-aren teoriari jarraituz egindako esperientziak frogatzen duen bezala. Bestalde, esan beharra dago, Open Building-aren teoriak eskala eta erabilera oso espezifiko bateko kontrol-eremuak soilik lagatzen dizkiela ez profesionaleri.

Egoera horren aurrean ikerketa-ildo posible bat irekitzen duten galdera mordera azaltzen da: Posible al da eskala ezberdinetan eta erabilera ezberdinetan kontrol-eremu profesionala amateurrei lagatzea, adibidez, hiri-eskalan? Kontrol-eremu profesionalak kontrol-eremu amateurrek baino eskala handiagoa izan behar dute, edo posiblea da kontrol-eremu profesionalak eskala txikikoak izatea, ez profesionalak eskala handiago batez arduratzen diren bitartean? Kontrol-eremuen aldaketa honek nola eragin dezake arkitektoen negozio-ereduetan? Eta arkitekturaren diseinuan?

Zaila da galdera hauei erantzun bat aurreratzea, baina egoera ekonomiko berri honen erroetako bat aurrerapen teknologikoak izanik, posible da erantzuna aurrerapen teknologikoen esku egotea. Adibidez, hainbat diziplinatan

*mass customization*⁵ sistemen bitartez laga izan zaie erabiltzaile amateurrei produkzio-katearen atal baten kontrola. Era berean, hirigintza eta geografia bezalako diziplinetan zenbait datu biltzeko geografo profesionalak plataforma digitalen bitartez parte hartzen duten erabiltzaile amateurrekin ibili ohi dira elkarlanean. Adibidez, Panek-en mapa emozionalak^{6,7} (Panek & Benediktsson, 2017; Pánek & Pászto, 2017) edo ThinkAboutSound⁸ (Craig, Moore, & Knox, 2017) bezalako esperientziak aurrerapen teknologikoen bitartez aurreratzen digute nola txerta daitekeen lan-indar amateurren hirigintza-eskalako arkitektura-produkzioan. Hala ere, ez da ahaztu behar, teknologia digitalen erabilera komenigarria, edo agian beharrezkoa, izan daitekeen arren, oinarrian beti prozesu baten diseinu egokiak egon beharko duela.

///

Bibliografia

- Habraken, N. & Ramón, F. (1975): *Soportes: una alternativa al alojamiento de masas*, Alberto Corazón.
- Howe, J. (2006): «The rise of crowdsourcing», *Wired magazine*, 14(6), 1-4.
- Kurutz, S. (2012): «Skipping the Architect: Wise or Otherwise?», *New York Times*, 2012-06-20.
- Leadbeater, C. & Miller, P. (2004): *The Pro-Am revolution: How enthusiasts are changing our society and economy*, Demos.
- Sundararajan, A. (2016): *The sharing economy. The End of Employment and the Rise of*.
- Susskind, R.E. & Susskind, D. (2015): *The future of the professions*, Oxford University Press.
- Von Hippel, E. (2005): *Democratizing innovation*, MIT press.
-
- 5 «Mass customization ordenagailuz lagunduriko fabrikazio-sistemak erabiliz produktu pertsonalizatuak ekoiztea da. Sistema hauek unitateko kostu txikiko masako produkzio-prozesuak eta pertsonalizazio indibidualaren malgutasuna konbinatzen dituzte». Wikipedia, «Mass Customization» artikuluko atala. Egileak itzulia. <https://en.wikipedia.org/wiki/Mass_customization> (Kontsulta: 2018-09-24).
- 6 Panek, J. & Benediktsson, K. (2017): «Emotional mapping and its participatory potential: Opinions about cycling conditions in Reykjavik, Iceland», *CITIES*, 61 (Journal Article), 65-73, <<https://doi.org/10.1016/j.cities.2016.11.005>>.
- 7 Pánek, J. & Pászto, V. (2017): Crowdsourcing mapping and participatory planning support system: Case study of Brno, Czechia, (P.M.P, Ed.) (Vol. Part F2), Springer Berlin Heidelberg, <https://doi.org/10.1007/978-3-319-57336-6_5>.
- 8 Craig, A.; Moore, D. & Knox, D. (2017): «Experience sampling: Assessing urban soundscapes using in-situ participatory methods», *Applied Acoustics*, 117, 227-235, <<https://doi.org/10.1016/j.apacoust.2016.05.026>>.